

1896

## Euskal-itz jostaldien Batzarrea

(Euskal-festen XV-garren urtea)

## ILLUNABAR BAT



## Lenbiziko aldeera Mondragoin irabazitako moldaera

O ¡zer artsalde isilla dagon!  
 O ¡zer illuntze geldi geldia!  
 Aizeak ere mugitzen ez du  
 Arbolak daukan osto berria!  
 An urrutian iya itzalpean  
 Azaldutzen da gurutz ezta:  
 Odoi illunak estaliko du,  
 Eta arratsak aurki guzia  
 Gordeko ditu trunkil gabean  
 Nola itsaso ala mendia!  
 Ez det arkiko inoiz lurtean  
 Nere biotzak nai duen gauzik!  
 Ez du sentitzen nere izateak  
 Maite maitechoen oroitz baizik!  
 Orrengatikan illun aldera  
 Jartzen naiz gora begiraturik!

Bañan gabaren lenengo izarrak  
 Ikuste ez ditut ayek besterik!  
 Eta gabaren lenengo intza  
 Isuritzen zait begietatik!  
 Bai! itzalpean bildu da dana...  
 Illargirikan ez da azaltzen,  
 Mendien malda dan baserrien  
 Leyoko argia doi-doi da igartzen!  
 ¡Arkaitz tarteko erreken otsa  
 O ¡zer garbiro detan aditzen!  
 . . . . .  
 Ene! biotza! ene! zentzua!  
 Zer nai nazute orla nastutzen...!  
 . . . . .  
 Eguna illuntzen duben ezkeroz  
 Zenbait geiago degun ikusten!!

FRANZISKO LOPEZ ALÉN.

